Nafarkaria

• ostirala • 1999ko azaroaren 19a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lizarra • 'Elgacena' literatura aldizkariaren 21. zenbakia karrikan da dagoeneko
Marijose Rekalde • «Artea zerbait adierazteko premiaren ondorioa da»

Iruñea ezagutzeko ibilbidea

Bertakoek Iruñea ezagut dezaten Arga ibaiaren ondotik abiatzen den hiri ibilbidea prest dago dagoeneko. Iruñeko jende anitzek ez du bere hiria ezagutzen. Azken Nafarroa Oinezean iruindar bat edo beste harritu egin zen bere hiriaren txoko anitz ezagutzen ez zuelako. Gauza bera gertatuko zaio Nafarroako Mendi federazioak prestatu Iruñeko Hiri Ibilbideko 16 kilometroak egiten dituenari, Iruñeko harresiak, alde zaharra eta berdeguneak ezagutuko ditu.



• JOXE LACALLE

Lizarra •

‘Elgacena’ kalean da

Lizarraldeko literatur aldizkariaren 21. zenbakia karrikaratu berri dute egunotan

Poesiaz, irudiz, kontakizunez, eta argazkiz apainduta daude *Elgacena* literatura aldizkariaren 59 orrialdeak. Literatura eta artea tartekatuz, hainbat herrialde eta hizkuntzatako artegileen lanak irakurri eta ikus daitezke.

‘Elgacena’ literatura aldizkariaren azken zenbakiak Florencio Alonso margolariaren lan bat biltzen du bere azalean. ● KRISTINA BERASAIN

NORBAITEK IZARRAK ESKEGI ditu zeru sabaian. Herriko jaietan halaxe egiten genuen: koloretako zapiak alderik alde plazan. Musika entzuten da, eme eta errea, lurraren barne-muinetatik sortua bezala. Limoiondoa dantzan ari da pozik, hostoak erortzen dira poliki, loreak punpaka, urduri eta bihurri. Gaua dabil bazterretan jolastari. Ate azpitik sartua da isilik, lapur baten moduan nonbait. Katu beltza dirudi, arrotz eta etxeko, zakar eta maitakor. Haize lasai bihozbera du iratzarri eta amets bigunak airean utzi. Leihoa irekitzen dut, gaua atera dadin kanpora. Nahasmenik gabe lo egin dezagun». Hauxe irakur daiteke karrikaratu berri den *Elgacena* literatur aldizkariaren 37. orrialdean. Felipe Juaristiren *Etxeko koadroa-2* izenburua daraman poema da. *Etxeko koadroa-1* eta *Etxeko koadroa-3* ere *Elgacena*-n daude. Halaber, idazle beraren *Igarotzen ez den denbora* kontakizuna irakur daiteke.

Elgacena literatur aldizkariaren 21. zenbakian euskaraz irakur daitezkeen hitzak dira horiek. Ahatik, frantsesezko, italierazko eta gaztelaniazko testuak aurki daitezke, hitz beltzak, banan-banan lotuak, orrialde zuri baten baitan. Armand Gatti monakoko idazlearen poesia luzearekin hasten da aldizkaria, frantsesez idatzia eta Francisco Javier Irazokik gaztelaniara itzulia. Gerora, Paul Le Jeloux idazle frantziarraren eta Paolo Lanaro italiarraren testuak irakur daitezke. Cancho eta Guyonek ere lekua dute zenbaki berri honetan, eta tartean bertako idazleen hainbat idazlan biltzen dira. Felipe Juaristirenez gain, Fernando Aranburu, Javier Corres, Angel De Miguel, Juan Gracia, Isabel Ordaz eta Alfonso Pascalen lanak jasotzen ditu aldizkariak.

Irudiak ere leku nabarmena du ale honetan. Koldo Telleriaren argazkiak, esaterako.

Elgacena 1982an sortu zen Lizarraldeko irakasle eta idazle talde baten eskutik. Aldizkaria 500 pezetaren truke eros daiteke liburudendetan.

→ Kristina Berasain

Ultzama •

Diapositiba emanaldiak hiru ortziraletan

ANUEN, Basaburuan eta Ultzaman mundua ezagutzeko aukera izanen dute gaur eta hurrengo bi ortziraleetan. Txile, Peru, Bolivia eta Ekuadorri buruzko diapositibak ikusi ahal izanen dira gaur Olaguen, Anueko udaletxean. Gaurkoak Periko Zunzarrenek eskainiko ditu. Gorrontzen bizi den gazte horrek aspalditik du bidaiak eta argazkiak egiteko zaletasuna. Haren bizipenen emaitza arratseko 20:30etan izanen da ikusgai, Olaguen.

Bigarren emanaldirako Txina herrialdea aukeratu dute. Juantxo Zigandak erakutsi eta kontatuko ditu Txinan barrena izandako gorabeherak, *Sei ero Txinan barna* izenburuko diapositiba emanaldian. Hilaren 26an izanen da, Basaburuko udaletxean, 20:30etan.

Azkeneko emanaldia abenduaren 10ean izanen da, Ultzamako udaletxean. Emailea Iosu Martinez izanen da. Lizasotar horrek Kenya eta Tanzaniako parke nazionalekoak eta Marokori buruz jardungo da, *Afrikako irudiak* izenpean, arratseko 20:30etatik aitzina.

Ekimen hau argazkilarien aldetik sortu zen, bidaia eta espedizio anitz egin ondoren, izandako esperientziak kontatu nahi baitzituzten. Asmoa garatzeko, kultur eta animazio zerbitzuaren laguntza izan dute.

→ Txari Eleta

muga enea

MIKEL REPARAZ

Agudo ikasi dute lezioa

Euskararen egoerari buruzko ikerketak eta inkestak irakurtzeak beldur ematen du sarritan. Eta bada horretarako arrazorik, iluntasunetik datozen istorio tristeak ekartzen baitizkigute, gehienetan. Agintarien zentzugabekerien ondorio tristeei buruzko kontakizunak eta kopuruak. Ermitagañako haurren eta gurasoen penak Euskal Herri guztian egin ziren ezagun garai batean eta hainbat politikoren adierazpenen zio izan dira –betikoen argudio, zoritxarrez-. Baina Iruñeko agintarien basakeria beste lurralde batzuetan zabaltzen ari da, nabarreria bezala. Sanzen kide arabarrek jaurlaritzen eta legebiltzarren ziutatetik dakarte azken albistea. Alfonso Alonso alkate popularra Gazteizko udaletxean ikusi izanak ez gintuen larregi harritu hasiera batean –Barcinaren irribarreak hunkitu gintuen bezalaxe-. Arabarrak eta nafarrak halakoxeak baitira, esan zuen baten batek. Baina PPren egitasmoa ez bide zuen inork irakurri orduan. Duela gutxi arte Ermitagañako afera hitzetik hortzera izan dutenek argitaratu dute eskandalua. Popularrek D eredua ezabatu nahi omen dute Gasteizko eskolaurreko udal ikastetxeetatik.

Eredu elebidun bakarra jarri nahi omen dute indarrean, egunon esaten ikas dezaten hiru urterainoko mutiko eta neskato gasteiztarrek, eta naturaltasun osoz gaztelaniaz egin dezaten jolas, horrek ez baitio inori kalte eginen. Lasai diote hori Arabako agintari politikoek, denondako gobernatzen dutela eta euskara zein erdara ezagutzeko denok dugun eskubidea defendatuko dutela gaineratuz. Hala ere, faktore inportantea ahantzi nahi dute Arabako buruzagi politikoek, haien adiskide nafarren ikasbideak profitaturik: gurasoen –herritarren- borondatea. Arabako hiriburu guztian hiru urterainoko talde bakarrak ikasten baitu gaztelania hutsez. Baina ikastetxe publiko guztiek popularren asmoak gaitzetsi dituztelarik, herritarren eskubideak ukatu baino urratzen dituen politikaren aurkako oihuak ez dira iritsi beharreko lekura iritsi, antza. Eta Alfonso zein Yolandaren seme-alaba politikoak elebidun bihurtuko dira, ikasgelan sartu aitzin señoritari «egunon» esaten dioten neskato eta mutiko formalak.

Iruñea • 9etatik 12etara

'Y por fin los feos ganan' izeneko diskoa karrikaratu du talde beterano honek

Santi Maiza, Amaia Casanova eta Javi Martinek osatzen dute taldea. Lehen *Trovadores* izena zuten, orain *De 9 a 12* (9etatik 12etara), eta euren estreinako diskoa plazaratu berri dute.

De 9 a 12 taldekoek jendea hunkitzen duten istorioak kontatzea dutè gustuko, melodiak eta erritmoak baztertu gabe eta aniztasuna helburu. ● Oskar Montero

De 9 a 12 taldekoek 'Y por fin los feos ganan' disko berria abenduaren 10ean aurkeztuko dute jendaurrean, Nabarreria zentroan. «Edurnezuri, ederra, jakintsua, itzuli egin zen, koroa, bitxiak, bizitza goxoa utziz... eta azkenean, itsusiak irabazle; printzea, berriz, ez». Horixe dio diskoaren azken kantak.

Izan ere, taldekideek diotenez, musikariak baino gehiago, kontalariak eta kantautoreak dira. «Horregatik, hitzen konpontzaile batekin jarri ginen harremanetan, kantak aberastu eta gure istorioei kalitate handiagoa emateko», azaldu dute. «Lan hori Carlos Aznarrek egin zuen, eta nahiko ongi egin duela pentsatzen dugu, kanta bakoitzari ukitu eta ñabardura ezberdinak emanez, diskoa aspergarria gerta ez dadin».

Hirurek kantatzen dute. Santi Maizak pianoa eta akordeoia jotzen ditu, Amaia Casanovak soilik abesten du, eta Javi Martinek gitarra jo eta konponketak egin ditu. Hirurek, hala edo nola, ikasketa musikalak egin dituzte, baina ez dira musikari profesionalak.

Jorratzen duten musika motaren inguruan, *De 9 a 12* taldekoek diote ez dutela egokitzat jotzen horri folk deitzea. Nahiago dute kantautoreak direla erratea, ez bertzerik. «Jendea hunkitzen duten istorioak kontatzea dugu gustuko, melodiak eta erritmoak baztertu gabe eta aniztasuna helburu», diote. Diskoak 12 kanta biltzen ditu, horietako bat euskaraz. Kontzertuetan euskarazko kanta gehiago abesteko nahia azaldu dute, ordea, eta diskoan kanta guztien hitzak euskaratu dituzte.

De 9 a 12 talde beteranoa da. Duela 13 urte hasi ziren, Trovadores izenarekin, eta, zenbait goiti-beheitien osteran, diskoa grabatzeari ekin zioten maiatzean. Kostata, baina; eurek ekoitzi behar izan dute diskoa eta, diru falta dela-eta, nahi baino anitzez ordu gutiago egin dituzte Iruñeko Arion estudioetan. Oraingoz, 500 kopia atera dituzte, «baina gehiago atera behar izatea» espero dute.

Euren errepertorioan 300 kanta baino gehiago dituzte. «Iruñea, maitasuna, eguneroko kontuak, injustiziak, gure bizitza aztertzeko modua islatzen duten asmatutako pertsonaiak dira gure hitzen protagonistak», komentatu dute.

→ Asier Azpilikueta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Iparraldeko laborarien oihartzuna

Martine Sistiage gazteak ELB sindikatuari buruz idatzi liburuaren berri dakar *Herria* astekariko azken zenbakiak: «Gatuzain argitaletxe gazteak bere bigarren liburua atera dauku. Lehenbizikoa izan zen Bixente Vrignon berriketariak idatzi zuena kondatuz gure Iparraldean abertzale mugimenduak zer bide segitu zuen Enbata sortu eta 1978ª arte. Bigarren liburu hunen gaia arrunt besterik da. Erakusten dauku ELB sindikata noiz eta nola sortu zen eta nolakoa saila deraman».

«Hor agertzen da, Eneko Bidegainek euskararat itzulia, duela hiru urte Martiem Sistiague gazteak bere ikasketak Paueko unibertsitatean segitzeta, ***maitrise*** delakoari buruz akulatu zuen lanaren mami nasaia. ***ELB, Ipar Euskal Herriko laborarien oihartzuna,*** hori da liburuaren izena eta mami guzia izen horren araberakoa dauka segurki».

«Liburua bera lau zatitan moldatua da. Lehenak erakusten du nola, 1968tik aintzina gehienik, arrangura berri batzu agertu ziren, bai eta azkartu, laborari gazte batzuen artean, etxalde ttipiak begiratu beharrez bereziki. Bigarren zatian ikusten da nola sortu zen ELB eta zoin izan ziren sindikat berriaren lehen urratsak, 1982an. Beste bi zatietan kondatua da ELBk geroztik ereman dituen borrokak, nola bermatu den eta beti bermatzen ezagupen handiagoa segurtatu naiz, nola arizan den bazterrak harro eta harro, ardi esnearen gainetik konparazione, bainan beste behar-ordu asko eta askori buruz ere aterabide baikorrak segurtatu nahiz. Oro har, liburu gotorra beraz, eta aberatsa, biziki interesgarria, hobeki konprenitzeko gisan zoin diren gaurko laborari anitzen arrangurak eta xedeak».

urdaiaren mintzoa

Xabier Larraburu

Ontza txuria

Berriz ere hemen naukazue adiskideok! Zeustezenutenba! «dagoeneko Egunkariatik kanporatu dute Larraburu hau», ezba!, hemen nago!, beti bezain berritsu! Baina ez ordea beti bezala: diferentea naiz, zer edo zer kendu didate: ospitalean sartu, sabelaldea ireki eta behazuna kendu baitzidaten, txof!, fuera. Maternitatean izan zen, ez baitzegoen beste kirofano librerik. Emakumeek umeak bizitzara ekartzen dituzten leku hortan nik goxoki baten tamainako zorne koloreko haragi puska itsusi bat kanporatu nuen. Bi egunetako kontua zena bi astez luzatu zen. Zesangodizuetba. Ospitalean artikuluak idazteko ez nuen batere gogorik. Bat ere ez. Sinesdaizue: bat ere ez. Ospitaleratua izan behar nintzen bezperan iragarpen bat, seinale bat, izan nuen. «Aintzinako erromatarren gisa»-esango didazue-, horixe baietz! Gaua zen eta ni salan nengoen, zaping osasungaitzean murgildurik, eta halako batean lehiotik begiratu eta ontza txuri bat ikusi nuen hegan San Lorentzoko dorretik haruntza zihoana, Takonerako zuhaitz beltzen aldera. Ontza txuria hegan egiten ikusi duzuenok badakizue zer nolako inpresioa ematen duen: mantsoki mugitzen den gorputz txuri biluzia. Ez du miruen planeatzeko joera hori, ez eta uso edo beleen mugimendu azkar hori. Tartean dagoen zer edo zer berezia da, eta beti gauez, eta txuria gainera. Arraroa egiten da. Antzinatean seinale latz bezala hartzen zuten, eta ni antzinako garaietako istorioen zale amorratua naiz. Horregatik, «txatxi piruli» pentsatu nuen. Badakit Klasiko irakurle amorratu bati ez dagokiola horrelako sasihizkuntza batean hausnartzerik, baina tira: «txatxi piruli, falta zitzaidana» -pentsatu nuen.

Handik bost egunetara gauzak konplikatu ondoren bigarren ebakuntzatik errekuperatzen ari nintzela erizaina etorri eta esan zidan: «Esnatzeko Salako batek iratzartzerakoan zer edo zer ozenki ahoskatu zenuela esan dit». «Euskaraz edo gazteleraz?» galdetu nion oso modu abertzalean. «Gazteleraz» -erantzun zidan berak. «Kaka» -esan nuen nik pixka bat larrituta. «Zer esan dut bada?». Berak irribarretsu, ekologista edo naturzale bati zuzentzen ari zitzaiola sinesturik «La Lechuza» esan zidan. ●

Iruñea ezagut dezagun

Hiria berrezagutzeko 16 kilometroko ibilbidea prestatu du Mendi Federazioak

Bertakoek Iruñea ezagut dezaten Arga ibaiaren ondotik abiatzen den hiri ibilbidea prest dago dagoeneko. Iruñeko jende anitzek ez du bere hiria ezagutzen. Azken Nafarroa Oinezean iruindar bat edo beste harritu egin zen bere hiriaren txoko anitz ezagutzen ez zuelako. Gauza bera gertatuko zaio Iruñeko Hiri Ibilbideko 16 kilometroak egiten dituenari, Iruñeko harresiak, alde zaharra eta berdeguneak ezagutuko ditu.

DUELA ZENBAIT URTE, APIKA ORAINDIK ERE, «Iruñea ezagut dezagun» izenburuko liburu berde baten laguntzaz, Nafarroako hiriburuko ikastetxeetako haurrek euren hiria ezagutzeko parada zuten. Horretarako hainbat txango egiten zituzten hirian barrena. Helburu berarekin jaio da, edo jaioko da, Iruñeko Hiri Ibilbidea. Ofizialki inauguratzeke dagoen arren, edozeinek egin dezake dagoeneko Nafarroako Mendi Federazioko-ek prestaturiko 16 kilometroko bidea.

«Proiektu hau aspalditik genuen», adierazi du Mendi Federazioko lehendakari Juan Mari Feliuk. «Senderismo mota berezi hau Europaren erdialdean hasi zen, Brujas bezalako hirietan, hots, balore artistiko eta historiko handiko hirietan. Baina Estatu mailan oraindik ez zegoen horrelakorik. Badago herritxoren bat, Murtziako Cejin kasu, baina hiribururik ez. Iruñea aitzindaria da alde horretatik».

Feliuk Parisko hiri ibilbidea egin zuen hasieratik bukaera arte, baita gustura egin ere. «Hori diseinatu zuenak ongi ezagutzen du Paris, badaki jendea eramaten berdeguneetatik, interes arkitektoniko-historikoko guneetatik, alde zaharretik, zoologikoetatik eta museoetatik. Iruñeak aukera handiak zituen antzeko ibilbidea egiteko eta, aurten 75. urteurrena ospatzen genuela profitatuz, proiektuari ekin genion». Aurreko udalak gartsuki lagundu zuen proiektua, baita oraingokoak ere.

Zazpi zubien bat egitea

Iruñeko Hiri Ibilbideak Erdi Aroko zazpi zubien bat egitea irudikatu nahi du, Burlatako Intxaustiko zubitik Miluzeko zubiraino. Ibilbidea Arga ugaldearen ondotik abiatzen da. «Argaren Ibai Parkearekin berreskuratzen ari dena berreskuratu nahi du bide honek ere», dio Feliuk. «Ibilbide hau ez da bakarrik ibiltzea maite duen mendizalearendako. Mendizaleok eraman nahi izan dugu gure kirola hiri barnera eta gure hiria berrezagutzeko aukera eman». Feliuk berak Iruñea berrezagutu du bidea diseinatzen zegoelarik. «Arga ibaian ikasi nuen igeri egiten eta hortik pasa naizenean ikusi dut zenbait gauza ez direla 40 urtetan aldatu. Argaren bazterren ondoan hiriaren zabaltzea jasan ez duen zonalde bat dugu. Hori erakutsi eta gorde nahi dugu bidearekin».

Iruñeko ibilbidea egitea otu zitzaienean bazituzten bi aitzinproiektu, egin dutena eta Iruñeko mugetatik joatea proposatzen zuen beste bat. Baina hura urbanoegia omen zen eta ibaiaren ondotik abiatzen dena aukeratu zuten azkenean. Feliuk dio ibilbidea diseinatzea mendira joatea bezala izan dela: «Egin daitekeena bilatzen duzu, ibiltzeko egokiena, eta interes paisajistiko eta kultural handiena duena bilduz». Iazko udan Mendi Federazioko zuzendaritzako lagun talde bat bildu eta bidea diseinatzeari ekin zioten. «Egunero arratsaldeko zortzietan elkartu eta bidearen zati bat egiten genuen datuak, neurriak eta edateko zerbait hartuz». Zuzendaritzakoak hagitz dibertitu zi-ren bidea diseinatzen.

Bidearen 16 kilometroak ez dituzte zati ezberdinetan banatu, baina horrek ez du erran nahi bidea aldi bakar batean egin behar denik. «Hasiera eta norantza bat gomendatzen dugu, Udaletxe plazatik ekialdera», komentatu du Feliuk. «Baina alderantziz ere egin daiteke. Eta autobus zerbitzu zabala dagoenez zenbait egunetan egin daiteke ibilbidea. Hori da hiri ibilbide batek duen abantaila nagusia».

Ibilbideko seinalizazio bertikala jarrita dago, baina horizontalean zenbait gauza falta dira. Erraterako, San Pedroko zubian ez da jarri lanetan ari direlako. Hasiera batean atzo inauguratu behar zuten ibilbidea baina atzeratu egin dute inaugurazio plaka bukatzeke dagoelako. Bestetik, topogida argitaratzea falta zaie oraindik, hau da, bidearen zehetasunak azalduko dituen gida. Heldu den urteko lehen hiru hilabeteetan karrikaratzea espero dute.

Arantzadiko rokodromoa

Iruñerri inguruko GR 220 ibilbideak eta Iruñeko Hiri Ibilbideak bat egiten dute zati batean, Zumalakarregiren atari ondoan hain zuzen ere. Hortik aurrera batera doaz Arantzadiraino. «Han dugu gure erronka nagusia, rokodromoa», adierazi du Feliuk. «Iruñea rokodromoa duen azkeneko Estatuko hiria izanen da. Hemen aspalditik datorren mendizaletasun handia dagoen arren, bertako eskalatzaileek ez dute entrenatzeko leku egokirik». Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak rokodromoa egiteko gastuak erdibanatuko dituzte. Arantzadin rokodromoa eraikitzeko proiektua egina dago baina oraindik ez da ezertan gauzatu. «Guretako funtsezko gauza da rokodromoa eta eskatzen jarraituko dugu». Feliuk ez du itxaropena galdu aipatu instituzioek aurrekontuetan oraindik proiektua haintzat hartzen baitute.

Bestetik, urtea bukatu baino lehen Iruñerriko GR 220 ibilbideko seinalizazio bertikala paratzen bukatzea espero du Feliuk. Ibilbide honekiko mendi federazioko lehendakaria, alde batetik, kontent dago jende anitzek erabili izan duelako, baina, beste aldetik, triste dago, hitza eman zuten instituzio guziek ez dutelako behar bezalako laguntza eman. «Orain Iruñerriko hamaika udalengana jo dugu errateko bidezidorra eurena dela eta zaindu egin behar dutela. Herrietan mendi taldejatorrak ezagutu ditugu eta horietako batzuk euren egoera normaldu dute federazioan. Talde hauek zain dezakete ibilbidea laguntza ttiki baten truke. Gainera, topogida oraindik ez dugu argitaratu. Urtearen lehen hilabeteetan ateratzea espero dugu». Hortaz, Iruñerriko eta Iruñeko ibilbideen topogidek ia batera ikusiko dute argia.

Proiektu hauek guziak eta beste batzuk behin bukatu edo bideratuz gero, Juan Mari Feliuk Nafarroako Mendi Federazioko lehendakaritza utziko du. «Nire bidea amaitutzat emanen dut, ordua da eta», erran du.

→ Asier Azpilikueta



Iruñeko Hiri Ibilbidea udaletxe plazan hastea gomendatzen du Mendi Federazioak. Hortik ekialdera jo behar da. Nolanahi ere, hauxe gomendio bat besterik ez da. Norberak ikusiko du zein den hasteko lekurik egokiena.
● JOXE LACALLE

Ibilbidea Burlataraino heltzen da Belosoko aldapatik jeitsiz. Bertatik Iruñeko ikuspegi ederra dago.
● JOXE LACALLE

Ibilbideak 16 kilometro ditu baina ez da aldi bakar batean egin behar. Autobus zerbitzu zabala dagoenez zenbait egunetan egin daiteke ibilbidea. Hori da hiri ibilbide batek duen abantaila nagusia.

J. APEZTEGIA

Arga ugaldearen gaineko Iruñeko Erdi Aroko zazpi zubien bat egitea irudikatu nahi du ibilbideak. Magdalenakoa (irudietan) XII. mendean egin zuten eta bere gainetik Donejakue bidea igarotzen da.
● JOXE LACALLE

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jean Robin idazle-kopiatzaile lapurtarra

Euskal letretan Haranederren *Testamentu Berria* kopiatzeagatik gutxiz gehien ezaguna izan da Donibane-Lohizuneko Jean Robin apeza (1738-1821); horrezaz landara, arras urria da egile honen gainean iritsi zaigun berria, ez beti baikor izateko modukoa gainera, izan ere, eta Lafitterri jarraikiz bereziki, garrantzi haundiagorik ez zuen kopiatzaile hutsa baino ez zatekeelako.

Esan bezala eta Lafitteren aburuz, ohikoan Robini eratxiki izan zaion *Birjinia* itzulketa ez litzateke Robinek berak egina, ezagun ez zaigun beste egileren batek burutua baizik, Robinena kopiatzaile lan soila izan zela. Hala izan ala ez izan, garbi dago testua Robini esker iritsi zaigula, eta beste ezer ez dakigunok, Robin aipatzen jarraitu beharko dugu. *Birjinia edo donzeil kristaba* lau liburukiko idazki luzea dugu zinez, 2.200 orrialde ingurukoa, Migel Angel Marin (Marseilla, 1697-Avignon, 1767) frantxikotarraren *Virginie ou la vierge chrétienne, histoire sicilienne pour servir aux jeunes filles qui aspirent à la perfection* - Paris, 1752- gai erlijiosoko elaberritik lapurterara 1783-1784. urteetan eginiko itzulpen-egokitzapena. Nahiz 1891.eko bilduma bibliografikoan Vinsonek egile honezaz mikorik aipatu ere egin ez zigun arren, Robinen eskuizkribu honen berri bazigun ekarri jada 1898.eko *Essai* famatuaren gehigarri eta zuzenketetan: «Un ms. en quatre volumes reliés en veau, format pet. in 8°, avec les tranches rouges et sur le dos linscription *donceilla christaua*. Sur les titres est la signature Jne. Marie Robin, et sur les feuillets de garde la note *ex libris Larralde presbyteri*, 1820. Le titre varie un peu à chaque volume. Il se résume cependant généralement ainsi: *Birjinia edo donceil christaba lempizte sicilia-rra osotasunerat heldu nahi diren nescatcha gazteei moldetzat baliatcezotçat aita begirungarri Migel-Aingeru Marin chikien chikien donepilaco fraideac egina eta Lapurdico eliza gizon batec berriro escuararat itzulia*».

Nahiz iparraldeko egilea den, Robinen testuan aski argi hazta daiteke Larramendiren eragina, 1745.eko hiztegi hirukoitzatik harturiko hitz berri ugaritan bereziki, izenburuko bereko *begirungarri* horrek argikiro salatzen digun bezala; hona hemen *Aintcineco solasa*ren hasmenta hitzak lagin gisara: «Donceil christabei eskeintcen diotegun moldea ezta hambat bapildetan hertsiac daudenentzat nola bere burrhasoen etchean edo bere gain bizi direnentzat. Lehenci ere balia dakieke, egia da; ordean baitute hejec biciaraudeac, hec leyalki begira betzate, eta hortaz dakete bere deia», non Larramendik sortu *lempizte* (historia), *donepila* (orden relijiosoa) eta *bapilde* (komentua) neologismoak baititugu.

Ber gauza agitu zaigu Dassanceren liburutegian zeutzan honako bi eskuizkribu luze hauekin, Lehenbizico liburua: Arima penitent baten sentimenduac, erregue prophetaren berrogoi eta hamargarren psalmoaren gainean, eta Bigarren liburua: Jaincoaren ganat itçultcen den arima baten sentimenduac erregue prophetaren ehun eta bigarren psalmoaren gainean. Bai Francisque Michelek eta bai Julien Vinsonek, biek aipatu zituzten itzulpen hauek, alabaina, Michel izan zen Robinen egiletasuna aipatu zuen bakarra, eta hortaz, hagitz gutxi izan dira uste honetan segitu izan diotenak, areago horren iritzi erabatekoa Lafittek jaulki zuenetik. Osotara 130 orrialde inguruko idazkia dugu, bi zatien artean berrogeita bat kapitulukoa, non lapurtera nagusi den, eta aurrekoan gertatzen zenaren kontrara, Larramendiren hatzik ez dago: «O Jaincoa, bekhatuec damuztatcen eta penitenciac facegatcen çaituena, errecibi çatçu fagorezqui çure populuac humilqui eguiten dauzquitçun othoitçac, eta urruntçatçu gure ganic gure bekhatuen nombre handiac mereci-araci dauzquigun cigorradac. Gracia hori galdetcen dautçugu Jesus Christo gure jaunaz, halabiz».

Bada Robin olerkaria ere, Onaindiak *Mila euskal olerki eder* bilduma mardulean ekarri ziguna -nahiz nondik hartu zuen zehaztu ez zigun-: «Errobin apezak baditu bertso jagiak be, orduko barri-zalekeriaren aurkakoak geien bat. 1802ko urrillaren 26an, Getarin komentu barri bat jaso ebenean, gai aretzaz egiñak, esaterako, guztiz zorrotz eta irrikoiak dira». «Zer egin zare?» olerkia da Onaindiak eskeini zigun Robinen lana, Auñamendikoek ere euskal literaturari buruzko entziklopediaren lehenbiziko alekian kopiatu zuten bera: «Zer egin zare, koplari zaharra / Gure anjeren xaxari zuhurra / Zure antzearen / Eta doñuaren / Emen gaude eske / Behar handi ginduke / Hel, bada arren». Azkenik, eta arras gauza iluna baden arren, D. Garatek berak 1783.eko martxoko *Le Mercure de France* aldizkarian Robin apezak sinatu bi libururen berri eman zuen, bata Amerikatara 1781.ean eginiko bidaztiaren eta Rochambeau kondearen gorabehera militarren berri ekartzen zituena, eta bestea aintzinitatearen gaineko sekretuei buruzkoa. Tamalez, bi hauei buruz Garaten aipamen labur hau baizik ez dugu.

etorri ahalean

Patziku Perurena

Gogoak bi neurri?

Pentsamendu ederreko liburu batetik neure egin ditut bi pasarte ttipi: «Egia eta gezurra, beren betetasun eta zorroztasun tipikoan aldarrikatuak, gehiegikeria traketsak dira, lehundu gabeko hiperboleak, pitokeriatik bertago dauden adierazpenak, eta kasik sekulan gurekin deus ikusirik ez dutenak. Beste gainekoan, noski, ez litzateke gutietsi behar, entretenitzeko eta apaintzeko duten balioa».

«Solasaldi batean, frankeza, aldez aurretik iragartzen bada, nabarmen gelditzen da zuri; eta ez bada aldez aurretik iragartzen, bihurrikeria dirudi. Zer balio eman, alarma horrenik gabe irristatzen diren beste gaineko hitz guziei?».

Munduko bertsolaritza osoa azterturik ere, nekez harrapatuko duzu honelako pentsamenturik, eta paradoxa badirudi ere, bi esaldi horiek oso ongi mugatzen lukete bertsolaritzaren eder guzia.

Egia eta gezur beteak dira, bertsolaritzaren bazka oparoa. Ezin du gehiago eskatu herriak, bere burua egia eta gezur bete horiekin entretenitu eta apaintzearekin aski baitu. Erabat jende artean eta jendearentzako bizi denak, ezin lezake gehiagorik eman, munduko kreaturarik argiena izanik ere. Oharmen zorrotz askiko jendea ezagutzen dut, bere izakera gregarioaz haratago jo ezin duena.

Egaña bertsolaria eta Egaña nobelagilea, ezin dira Egaña funtzionari baizik izan; eta biak giza maila eta interes berberekoak dira neretzako. Ez baitu inor egiten funtzionari, gizarte modu batek edo ofizio batek, bere izakerak baizik. Eta egungo bertsolari guztiak izakeraz jotzen ditut nik funtzionari.

Orain aurretik hil da lehen bertsolari funtzionala, «aldez aurretik iragarritako frankeza» asmatu zuen eskola berriko lehen diztzipulu anpulosoa, eta ez dut hitzerdi bat bakarrik ere sumatu, funtzionari tankeraz bestekorik. Nola liteke orduan «funtzionari» kontu horrek min ematea? Badakit: mina inozenteak hartzen du beti, jakina, histrionikoa maisutzat hartzeko bestetako kapaz ez delako.

Nere «Pernandoren egiak», oso ongi dio Egañak, bertsolaritzaz ari delarik. *Peilokeriak* esan nahi duen lokuzio hori, Fernando Amezketarrari zor diogu. Oso adierazgarria da, bertsolari prototipo honen eragina, gure herri literaturan. Ez dugu beste Kijoterik. Baina, inondik ere, izakeraz (eta odolez ere) ijitoa behar duela, zenbatek egin ote du errezelo? Eta zebatek aitortu, frankeza bihurriz?

Hala eta guzi, Fernando jitoa, neurri bakarreko bertsolaria zen, «frankeza bihurrikoa» alegia. Hil berri honen eskolak asmatu zuen bi neurritakoa, ijito talde teoriko akonplejatu batek: Aitzol, Lekuona... Niri ordea, jito, baskoi edo mairu, neurri bakarreko gogoa interesatzen zait. Bitarakoa faltso baitzait bietan. Giputx aldean egindako literatur afari bakoitzean frogatua.

Horrexegatik, han, gauza bistakoak aipatze hutsa da girdinkeria mingarri. Aspaldi ikasia daukat lezioa. Erantzule diplomatuenak aurrena direla, nerea beren eginez bezala deseginen naute beti, eta jende jatorrenak balira bezala gailenduko dira betiko teoriko funtzional argi moduan. Horiei diet nazkarik haundiena: beren buruari gradu bajua eta altua ipini, eta gero bietatik dirua eta izen ona beste ametsik ez duten ijito bikoiztu horiei.

Ziztulari edo idazle, ni, berbera nauk Antonio, ez nazak Basarrieskola berriaren arabera bi graduko egin. Hurrengoan saia hadi idazlea mintzen, ziztularia baino puskaz funtzionari negargarriago izan zitekek eta.

Artikulu ondokoa: Euskal gizarteak faltan duen «malditoa» sortzen ditek, ustez, nere kontura, eta hitz ttar bat aski ditek mina hartzeko: «funtzionario», esate bateko. Hortik atera kontuak hik, zenbatekoa den nere malditismoa?

Ziria • Motxorrosolo •

Lagunarenak

Gustuko adierazpenik ezean ez da ezer agertuko. Egon badago, kontseilariaren erranak bildu ez dituen kazetaririk. Menturaz, ez ziren sanedrindarren gustuko. Bestetik, ondokoak, *lagunaren* irudiaz arduratzen denak, ez du inolako eragozpenik adierazitakoa gezurtatzeko. Bistan denez, beste eremuko arrazoiek ekarri dute hezkuntzakoa ospitaleko eraikinera.

Marijose Rekalde

Artista

«Artea zerbait adierazteko premiaren ondorioa da»

KRISTINA BERASAIN

Birziklapenaren filosofia landuz, Marijose Rekalde artista nafarrak aurtengo Caja España erakundearen eskultura saria jaso berri du. Larru zatiak eta hiltzeak erabilita, 'Torso fetiche' izeneko lana egin du, zeinak gizakiaren gorputza aztergai baitu, eta 3,5 milioi pezeta eskuratu ditu.

UME KOXKORRA ZENETIK, kolorez eta formaz janzten zituen paper zuriak. Egun, Deikazteluko bere etxeko ganbaran orduak ematen ditu lanean. Pintura eta eskultura tartekatzen ditu orain.

■ Betidanik pintura landu izan duzu eta azkeneko sariak, behintzat, eskulturan jaso dituzu. Nola da hori?

Egia da betidanik margolaria izan naizela. Unibertsitatean eskultura lantzeko baliabideak eskura nituen, baina nik pinturako espezialitatea ikasi nuen. Dena den, egia da nik egiten dudan eskultura berezia dela, nirea, eta hortaz, teknika tradizionalak ikasi ez izana baliagarria izan zait nire medioekin nire eskulturak lantzeko.

■ Nola egiten dituzu zure eskulturak?

Buztina da nire lanen euskarria. Gero paperez estaltzen ditut. Papera material arina da, ezin du denbora luzez iraun, eta orduan, bertzelako elementu anitz erabiltzen ditut. Azkenik, paperaren gainean ipintzen ditudan osagarriak dira nire lanari izen berezia eman dioten elementuak. Larruak, kristalak, arraultza azalak edo dena delakoak barruko objektua estaltzen du.

■ Saritu berri dizuten lanean gizon baten soina agertzen da, kolorezko larruz eta hiltze zorrotzez estalirik. Zergatik?

Nire ibilbide artistikoan beti izan dut aztergai gizakien irudia. Nire margoetan zein eskulturetan, nolabait, beti agertzen da gizakia. Margoaren historian emakumea izan da protagonista, margolariak normalean gizonak zirelako. Nik gizonen soinak lantzen ditut, emakumea naizelako eta hurbilen dudan gorputza gizonezko batena delako, horixe da hobekien ezagutzen dudan gorputza. Saritu didaten eskulturan, larru zati bakoitza hiltze batek zeharkatzen du,

«Aurpegi baten adierazpena infinitua da. Pertsona batek milaka emozio adierazten ahal ditu bere aurpegiarekin, eta hori ezin du sagar batek egin»

eta sortzen duen sentsazioa bikoitza da: batetik, besarkatu egin nahi duzu, larrua goxoa eta beroa delako, baina, bertzetik, hiltzeen zorroztasunak beldurra ematen du. Dikotomia bat sortzen da, erakarpena eta aldarapena.

■ Kontraesan hori lortu nahi zenuen lan honekin?

Obra bat lantzen hasten naizenean ez dut argi izaten zein den lan horren ideia kontzeptuala. Hala ere, saihestezina da behin lana amaitua dagoenean eskulturaren bidea moztea. Lanak momentu horretan bizitza propioa hartzen du, izaera berezia. Nik eman ez badiot ere, eskultura osatzen duten elementuek izaera bakan eta bakarra ematen diote lanari. Batzuetan zure eskuetatik ihes egiten du lanak transmititzen duenak.

■ Eta zuk zerbait adierazi nahi izaten duzu zure lanen bitartez?

Bai, ustez. Hala ere, zenbait artistak ideia kontzeptual konkretu bat adierazteko lan egiten dute. Niretzat, berriz, artea joko bat da, umeen joko bat. Piezak lortu, elkartu, uztartu behar dira, eta zenbait piezak elkarrekin funtzionatzen dutenean, nahikoa izaten da. Jakina, hori guztia zure baitan dago, zu ez zaude hutsik; gauza batek beste batera eramaten zaitu, eta lana progresiboa da. Batzuetan ezer adierazi ez izanaren konplexua izan dut, baina hori ezinezkoa da, lanean zauden momentuan zerbait adierazi nahi duzu, zuk jakin gabe. Artea zerbait adierazteko premiaren ondorioa da. Eta zerbait hori, mezu hori, artelanaren muinean dago, eta beste pertsonek nolabait hori jaso egiten dute, zuzenean ez bada ere.

■ Gizakia da beti zure artelanen oinarria?

Paisaiak ere margotu izan ditut, baina gizakiaren irudia eta, batez ere, erretratua ikertzeko eta ezagutzeko borrokan aritu naiz betidanik. Aurpegi baten adierazpena infinitua da. Pertsona batek milaka emozio igortzen ahal ditu bere aurpegiarekin, eta hori ezin du sagar batek egin. Bodegoi batean koloreak alda ditzaket, baina beti berdina izanen da. Pertsona batek, aldiz, aukera anitz ematen dizkizu. Zerbait bizia da.

■ Zure eskulturetan erabiltzen dituzun materialak ere naturalak izaten dira?

Bai, herri txiki batean bizi izanaren ondorio da hori. Hemen bertan lortzen ditut lanean erabiltzen ditudan materialak. Birziklapena dut oinarri, zaborretan, hondakinetan edo txatartegian aurkitzen ditut nire osagaiak. Zerbait berria erostea baino nahiago dut hori. Jendeak balio duen gauza bat zakarretara botatzean, arinegi jokatzen da. Errespetu handiagoa zor diegu objektuei. Uste dut erabiltzen ditugun gauzak etorkizun luzeagoa izan dezaketela, eta filosofia hori erabiltzen dut nire lanean.

Kristina Berasain

soslaia

Marijose Rekalde 1964ko maiatzaren 1ean jaio zen Iruñean. Bere haurtzaroa Sartagudan pasatu zuen, eta txiki-txikitandik datorkio margotzeko zaletasuna. Oroitzapen goxoak ditu garai haietaz. Ama eta ahizpa ere margolariak ditu, eta bera 18 urtekin Iruñeko Arte eta Lanbideen eskolan sartu zen. Han bi urte eman ondoren, argi ikusi zuen bere bidea, eta orduan Arte Ederrak ikasi zituen EHUn.

Marijosek dioenez, unibertsitatea amaitzerakoan bere artista ibilbideari eman zion hasiera. Ordu arte, bertze artisten lanak ikertzen zituen, eta erakusketaz erakusketa igarotzen zituen egunak. Egun, berriz, hiriaren handitasunetik herrixka txiki baten isiltasunera ihes egin du, eta bertan, Deikaztelun, bere lanak sortzen ditu.

Hamar urteren buruan, erakusketa anitz egin ditu artistak, bai bakarka eta bai bertze margolariekin batera ere. Lizarran, Garesen, Iruñean, Bilbon, Donostian eta bertze hiri batzuetan eskegi ditu bere obrak. Sarien zerrenda ere luzea du. Jaso berri duenaz gain, Nafarroako Gobernuko aipamen anitz jaso ditu, esaterako, Artista Gazteen lehiaketako eskulturako lehen saria.

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1999ko azaroaren 19a

ZALDIEROA.komikizopa

Nafar Kronika

Mikel Beramendi

•

Ibrahim

Ibrahim du izena, edo antzeko zerbait. Mauritaniarra da, 11 urteko. Tierra de Hombres elkarteak ekarri du ospitalera operatzera, operazioa eginez gero arrastaka ibili beharrean oinez has litekeelakoan. Urtebetez ez ditu ama, aita eta anaiarrenak ikusiko, sekula probatu gabeko janarira ohitu beharko du, operazio izugarri gogorra eta ondorengo errekuperazio are gogorrari aurre egin beharko dio. Hori dena jasandakoan, agian, hanketan duen gaixotasuna zertxobait sendatu eta baliteke, noizbait, oinez ikastea.

Bitartean, Ibrahim gixajoa arrastaka ibiliko da, gure artean. Tierra de Hombresek haurra zaintzeko egin zuen eskariari baietz erran diotenek lagundurik. (Bide batez, ohartxo bat: izena nahiko matxista duen elkartearen deiari erantzun diotenen ia guztiak emakumezkoak dira).

Badakit Ibrahim mutiko zoragarriak ez duela zer ikusirik ohiko kroniketan idatzi behar omen denarekin. Baina, benetan, gure seme alabek ahantzirik uzten dituzten jostailuek edo auto batean sartzeak sortzen dion ilusioa eta ilusioaren isla den irrifarrea ikusi nuelarik, hura dena gobernua, oposizioa, EAren kongresua eta gainerakoa baino garrantzitsuagoa zela erabaki nuen.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Orkoien:** Eraso, Konorterik Gabe, Berri Txarrak, Koma eta Soziedad Alkoholika. Frontoian, 21:00etan.
- **Iruñea:** Bihar PiLT izanen da Aitzina herriko tabernan.
- **Azkaine:** Buitraker talde iruindarrak joko du bihar.

BERTSOLARIAK

- **Donezteb e:** Gaur, 12:00etan, Peñagarikano eta Sebastian Lizaso. Ganadu merkatuan.
- **Bera:** Iñaki Murua, Andoni Egaña, Bittor Elizagoien, Xabier Legarreta, Oihane Enbeita eta Igor Elortza bertsolariekin. Gai jartzaile lanetan Jon Abril izanen da. Gaur, 22:00etan, kultur etxean
- **Donibane Lohitzune:** Bihar, larunbatarekin, bertso afaria eginen dute Sardina erretegian Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Xapun, Sustrai Kolina eta Amets Arzalluzekin. Txartela hartzeko deitu 0033-5559511390 telefonora.
- **Urruña:** Igandean Ziburuko kolegioaren aldeko besta eginen dute arratsaldean Maindi Murua, Txomin Urriza, Gorka Albistur, Ihintza Marfuirault eta Oika Urteagarekin.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Gaur, 20:00etan, antzerkigintzaren egungo egoera Nafarroan aztertuko dute Ignacio Arellanok, Pablo Lujicek eta Azucena Zabaletak Gazteriaren Etxean.
- **Iruñea:** Asteazkenean, hilaren 24an, Zaldiko Maldikon euskal selekzioari buruzko mahai ingurua eginen dute ESAIT taldeko zenbait kidek eta zenbait kirolarik.
- **Berriozar:** Asteazkenean, Imanol Esnaolak honako hitzaldia eskeiniko du 20:00etan kultur etxean: «Gaurko gazteak euskaraz komunikatzen: erregistrorik gabe euskararen zorroa hutsik».

KIROLAK

- **Urbasa:** Nafarroa Kirol Elkarteak mendi arteko bizikleta ibiladia antolatu du igandera-ko. Goñi herritik Opakua gainera abiatuko da Urbasa mendilerroan barrena. Interesa dutenek gaurkoa dute Elkartearen egoitzan (Jarauta 78) izena emateko azken eguna.
- **Iruñea:** Txantreako V. Mendi Astearen barruan, diapositiba emanaldiak izanen dira egunero 20:00etan Auzotegin: «Monumentu megalitikoak» (azaroak 22), «Alpamayo'99» (23), «Muztag Ata, izotz mendia» (24), «Hiru aste Tien Shanen» (25) eta «Igoerak Alpeetan» (26).

IKASTAROAK

- **Iruñea:** IPESek Palestina eta Ekialde hurbilaren inguruko ikastaroa antolatu du. Irakaslea Bichara Khader belgikarra izanen da, Lovainako Unibertsitateko Ikasketa Islamikoen Zentruko zuzendaria. Osotara 12 ordu izanen dira astelehenetik asteazkenera. Izena emateko deitu 948-225991 telefonora.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Bihar, 20:00etan, herri meza eginen dute Donibaneko San Alberto parrokian.

Bertsoaroa'99 bukatu da



JOSU SANTESTEBAN

Igor Elortza, Bittor Elizagoien, Iñaki Murua eta Jon Sarasua bertsolariek akabera eman zioten atzo Erraldoien Txokoan Bertsoaroa'99ri. Bertsoaren inguruan eraturiko ihardunaldi hauek finkatzen ari dira Iruñeko eskeintza kulturalean. Bere hamaikagarren edizioa bete du Bertsoaroak aurtengoan eta jendea erakartzen du. Horren lekuko da asteartean irudian ageri den Erramun Martikorenak eskeini zuen kontzertu arrakastatsua. Erraldoien Txokoa lepo bete zen Baxe Nafarroakoaren ahotsarekin gozatzeko.

Azaroaren 26an hasi zen Bertsoaroa eta denetara sei saio izan ditu, batzuk ohiko bertso saioak izan dira eta beste batzuetan modu berritzailean landu dute bertsoa. Nafarroako Bertsozale Elkartea eta Iruñeko Udala ari dira dagoeneko hamabigarren edizioa prestatzen.